



Munduko Hizkuntza Ondarearen  
UNESCO Katedra

Cátedra UNESCO  
de Patrimonio Lingüístico Mundial

UNESCO Chair  
on World Language Heritage



[ 2017 urteko

JARDUERA-MEMORIA ]

# AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. 2017eko jardueren laburpena
3. Jarduerak
  - 3.1. Proiektuak
  - 3.2. Formazioa eta dibulgazioa
    - 3.2.1. Emandako ikastaroak
    - 3.2.2. Katedrak dibulgaziorako antolatutako ekitaldiak
    - 3.2.3. Katedrako kideen parte hartzea beste ekitaldi zientifiko batzuetan
  - 3.3. Katedraren presentzia hedabideetan
4. Argitalpenak

# 1. SARRERA

---

2006ko abenduan sinatu zen UNESCO eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) arteko hitzarmena Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra sortzeko.

2007ko otsailean, UPV/EHUko errektoreak Itziar Idiazabal Gorrotxategi, UPV/EHUko Euskal Filologiako Katedraduna, izendatu zuen Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren zuzendari.

2007ko urrian Katedra UPV/EHUko Zubiria Etxean kokatzen da (Agirre Lehendakariaren Etorbidea 81, E-48015 Bilbo).

UNESCO Etxearen diru ekarpenari esker, Katedraren jarduerak 2007-2008 ikasturtean hasten dira. Harrez geroztik Katedrak dibulgazio, formakuntza, ikerketa eta sentsibilizazio ekimenak burutzen ditu erakunde ezberdinen laguntzari esker.

Katedra, gaur egun, **Batzorde Tekniko Iraunkorrek** eta **Aholku Batzordeak** osatzen dute.

## 2017eko Batzorde Tekniko Iraunkorra

- Itziar Idiazabal (UPV/EHU), Euskal Filologia Katedraduna.
- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Andoni Barreña (Salamancako Unibertsitatea), Euskal Filologian Doktorea eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Euskal Filologiako irakaslea.
- Margareta Almgren, Hizkuntzalaritzan Doktorea eta UPV/EHUko HIJE taldeko ikerlaria.
- Ines Garcia Azkoaga (UPV/EHU), Euskal Filologian Doktorea eta hizkuntza irakaskuntzan aditua.
- Leire Diaz de Gereñu Lasaga (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan Doktorea
- Mikel Mendizabal (Garabide Elkarte), hizkuntza eta biologia aniztasunean ikertzailea.
- Ane Ortega (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Linguistikan Doktorea eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Ibon Manterola, (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan Doktorea.

- Beñat Garaio, (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta soziolinguistikan ikerlaria.
- Jone Goirigolzarri, (Deustuko Unibertsitatea), soziolinguistikan doktorea eta irakaslea.
- Arkaitz Zarraga, (Basauriko Euskaltegia) Euskal Filologian lizentziatua eta euskararen didaktikan aditua.
- Manel Pérez-Caurel (UPV/EHU), Hizkuntzalaria eta hizkuntza gutxituetan aditua.
- Nora Etxaniz, (UPV/EHU) Zuzenbidean Lizentziatua eta ikertzailea giza eskubideetan, bereziki hizkuntza eskubideak

### Aholku Batzordea

- Xabier Aierdi, UPV /EHUko Soziologia Katedraduna.
- Maria Jose Azurmendi, UPV/EHUko Soziolinguistika Katedraduna.
- Maitena Etxebarria, UPV/EHUko Hizkuntzalaritza Orokorreko Katedraduna.
- Patxi Goenaga, UPV/EHUko Euskal Filologia Katedraduna.
- Guillermo Dorronsoro, UNESCOEtxearen Lehendakaria.
- Arantza Acha, UNESCOEtxearen Zuzendaria.
- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Euskal Filologiako irakaslea.
- Ane Ortega (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Linguistikan Doktorea eta hizkuntzen didaktikan aditua.

## 2. 2017 URTEKO JARDUEREN LABURPENA

---

Euskal Herriko Unibertsitateko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak honako jarduerak burutu ditu 2017 urtean zehar:

- Hizkuntza gutxituen komunitateekin lankidetzan, alde batetik euren jatorrizko hizkuntzen normalizazio prozesuetan aholkularitza lanak egiten eta bestetik irakaslearen formakuntzan laguntzen. Katedrak ekarpen garrantzitsua jasotzen du Eusko Jaurlaritzatik (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), bereziki Kolonbiako hizkuntza komunitateekin lan egiteko. Aldi berean, katedrak hizkuntza lankidetzaren eremua hausnarketaren eta teorizazioaren ikuspegitik lanean dihardu, euskal kooperazioak edozein eremutan hizkuntza irizpidea kontuan har dezan.

- Katedrak lidergoa hartu du Euskal Herrian 2030 Agendan hizkuntza aniztasuna txertatzeari dagokionez. EASO Politeknikoarekin batera 17+1 deituriko proiektua abiatu da, eta hizkuntzen presentzia eza salatu nahi dugu Nazio Batuetako 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuen aipatu agendan. Helburua, euskal aktoreak sensibilizatzea da, eta munduari begira hizkuntzen aniztasunaren babestea garapen iraunkorraren diskurtsoan eta ekimenetan ezinbestekoa dela erakustea litzateke.

- Ezagutzaren dibulgazioaren eremuan, hainbat jardunaldi antolatu dira eta beste erakunde batzuek antolatutako kongresu eta ikastaroetan parte hartu dugu, beti ere hizkuntza aniztasunaren aldeko sensibilizazioa eta irakaskuntza eleanitzerako prestakuntza bultzatuz. Aipatu beharra dago, baita ere, Katedrak antolatutako 2017 urteko uda ikastaroa "Hizkuntza gutxituen hiztun berriak, eskola eta gizartea". Ikastaroaren amaieran, katedraren 10. urteurrenaren ospakizuna egin zen eta bertan katedraren ohorezko kide izendatu zen M. Carme Junyent, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea.

- Ahalegin berezia egin da katedraren presentzia bultzatzeko hedabideetan, sare sozialetan eta argitalpen zientifiko espezializatuetan.

- Munduko eta bertako hizkuntza aniztasunari buruzko ikerketak burutu dira, aniztasun hori sustatu edo ahultzan duten baldintzei buruzkoak barne. Elebi/eleaniztasuna, hezkuntza programa elebidun eta eleanitzak eta hiztun berrien jarrerak eta motibazioak oso garrantzitsuak dira Katedrarentzan, bai ikerketa programetan eta baita lankidetzan proiektuetan ere.

- Elkarlan hitzarmenak sinatu dira hainbat euskal eradundeekin, alde batetik hizkuntza lankidetzan bultzatzeko eta bestetik, Euskal Herriko eta munduko hizkuntza aniztasunari buruz sentzibilizazio ekimenak burutzeko. 2017ean zehar Azkue Fundazioarekin hiru urteko hitzarmena indarrean egon da eta baita Berriz eta Elorrioko udalekin ditugun urteko hitzarmenak ere; Katedrak Euskal Herriko UNESCO Sarean duen presentzia indartu egin da lehen aipatutako 17+1 proiektuari esker EASO Politeknikoarekin batera, eta beste kide batzuekin elkarlanean ekimenak bultzatu dira. Besteak beste, *Organización Indígena de Antioquiako* (OIA) Richard Sierra, zenú herriaren ordezkariaren bitartez aipatu erakundearekin harremanetan jarri gara. 2017an, baita ere, Katedrak bere sareko partaide egin du Oihaneder Euskararen Etxea, eta bereziki bertan katedrakide berria den Beñat Garaiok koordinatzen duen "Hitz adina mintzo" programa. Gasteizko *Asociación Africanista Manuel Iradier* elkartearekin ere hitzarmena sinatu da, Afrikan hizkuntza lankidetzan egitasmoetarako proiektuen jarraipen helburuarekin.

## 3. JARDUERAK

---

### 3.1. Proiektuak

i. Kolonbiako nasa-yuwe hizkuntzaren indarberritzea: baliabide didaktikoak eta aholkularitza helduek hizkuntza ikasteko eta alfabetatzeko, hezkuntza elebiduna bultzatzeko, eta irakasleen formakuntzarako.

Proiektuak momentu honetan bi helburu dituela esan dezakegu: alde batetik hizkuntza politikak zehazten laguntzea eta bertan hizkuntza arloan dauden agintari, talde eta erakundeekin hizkuntza plangintzari dagokionez aholkularitza lanak egitea. Bestetik, irakasleen formakuntza bultzatu eta eskola materialak sortzen jarraitu. Aurtengo lanak material didaktikoen eta jardueren diseinuan zentratu dira, zehazki nasa yuwe bigarren hizkuntza helduen irakaskuntzarako A1 mailarako programazioari begira. Aurten ez dira Katedrako kideak Kolonbiara joan, baina hiru nasatar egon dira Euskal Herrian Garabidek urrian antolatutako ikastaro trinkoan eta horri esker bideratu ahal izan dugu aipatu programazioa eta materialgintza. Ekimen hauek Eusko Jaurlaritzatik (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) eta baita Berriz eta Elorrioko Udaletatik ere jasotako laguntzei esker gauzatu ahal izan dira.

ii. 17 + 1 Helburu Mundua Eraldatzeko

2015eko irailean munduko liderrak Nazio Batuetako Batzar Nagusian bilduta Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuten. Agenda horren garrantzia eta norainokoa aurrekaririk gabekoa da. Nazio Batuen Gutunaren printzipioetan oinarrituta, bakea, elkar-ulertzea eta nazioarteko lankidetzaren ardatz izanik, eraldatzaille eta ausarta den ekintza plan bat da, pertsonetan, planetan, oparotasunean, bakean eta itunetan zentratuta dagoena. Halere, 2030 Agendaren 17 helburu horietan ez da kontuan hartu behar den bezala hizkuntza eta kultura aniztasuna babesteak garapenean duen garrantzia. Guk uste dugu Euskal Herrian hizkuntzekin, eta bereziki hizkuntza gutxiagotuekin daukagun lotura kontuan izanda, hutsune hori betetzeko ardura hartu behar dugula. Horretarako, 18. helburua formulatu, bere xedeak zehaztu, eta zabalduko dugu euskal aktoreen artean ekimen desberdinen bitartez: erakusketak, topaketak, hitzaldiak, argitalpenak etab. antolatu eta burutuko ditugu 2018 urtean zehar EASO Politeknikoarekin eta beste erakunde batzuekin batera.

iii. Beningo bariba hizkuntzaren normalizaziorako teknikarien aholkularitza eta prestakuntza.

Proiektu hau "Vie pour tous" (Parakou, Benin) gobernuz kanpoko erakundeak katedrari egindako eskaera batetik sortu zen. Hain zuzen, bariba edo baatonoum hizkuntzaren erabilpena eta irakaskuntza sustatzeko asmoarekin, GKE honek irakasleak eta normalkuntza teknikariak prestatu nahi ditu. Proiektu hau Iradier Elkartearekin batera Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzari esker landu da. 2017ko hasieran katedrako bi kide joan dira Beningo iparraldera (Borgou eta Alibori departamentuak) egoera aztertzerako eta "Vie pour tous" erakundeko kideak eta proiektuak ezagutzeko. Hortik aurrera gure aukerak aztertu dira Beningo errealitateko hurbiltzeko eta bertako hizkuntza gutxituei buruz proiektuen bat bultzatzeko, bereziki irakasle elebi-eleanitzen formazioari begira.

#### **iv. Hizkuntza gutxiak eta hizkuntza aniztasuna proiektua. Azkue Fundazioa 2015-2017.**

Azkue Fundazioaren laguntzari esker, proiektu honen helburua munduko eta Euskal Herriko hizkuntza aniztasunari buruzko informazioa zabaltzea da. Proiektuaren eremuan, Katedrak mintegiak eta jardunaldiak antolatzen ditu, ekitaldi horietara kanpoko adituak ere gonbidatuz. Horrez gain, Nazioarteko Ama Hizkuntzaren Eguna dela eta, urtero topaketa bat antolatzen dugu Azkue Fundazioaren egoitzan. 2017an topaketa hori birtuala izan da: egun osoan zehar hiztun berriei buruzko infografia bat zabaldu eta azaldu genuen sare sozialen bitartez, batez ere Twitterren. Bestalde, Azkue Fundazioaren webgunean, Katedrak elikatzen duen atal bat dago. Bertan, munduan gertatzen diren hizkuntza aniztasunari eta hizkuntza gutxituei buruzko istorio/berri interesgarriak kontatzen ditugu euskaraz eta gaztelaniaz (berri horiek Azkue Fundazioaren eta Katedraren sare sozialetan ere zabaltzen dira).

#### **iv. UNESCOren Hizkuntza-Atlas berria**

Datozen urtetan UNESCOk bere Hizkuntzen Atlas berritzeko proiektua martxan da, eta eginkizunen zati baten ardura, bereziki Europako hizkuntzei degokienean, Katedrak, UNESCO Etxeak eta Klusterrak hartuko dute. Hori egin ahal izateko Eusko Jaurlaritzak eta UNESCOk sinatutako hitzarmen baten diru-laguntza izango da.

#### **v. Murgilketa bitartez euskaldundutako hiztun berriak: jarrerak eta identitatea" (FFI2012-37884-C03-03)**

Proiektua europar \*COST New Speakers in a Multilingual Europe: Opportunities and Challenges\* (ISCH COST Action IS1306) sarean integratuta dago. Katedrako Esti Amorrortuk eta Ane Ortegak "Expert" eta "MC Substitute" gisa hartu dute parte ikerketaren 1. lerroan (Indigenous minority languages). 2014 urtetik aurrera Katedrako Itziar Idiazabal eta Ibon Manterola ere proiektu honetan laguntzen aritu dira. Honekin lotuta Katedrak Deustuko Unibertsitatearekin batera uda ikastaro bat antolatu zuen 2017ko uztailan hiztun berrien gaiari buruz UPV/EHUren Udako Ikastaroen barruan.

#### **vi. Garapenerako lankidetzak proiektuetan hizkuntza-irizpidea txertatzeko proposamena**

Proiektu honen helburua, hizkuntza aniztasuna kontuan hartzen duten irizpideak eratu eta txertatzea da garapenerako lankidetzan aplikatu daitezkeen. Bestelako oinarriko irizpideak (genero berdintasuna edo jasangarritasuna) aplikatzen diren moduan hizkuntza aniztasuna ere kontuan hartzea da helburua. Horrekin lotu nahi dena, nazioarteko lankidetzak hizkuntzetan arreta jartzea da, hau da, jatorrizko hizkuntzen (batez ere gutxiak) egoerak leku bat izatea proiektuak antolatzeko orduan. Ideia honekin jarraituz, aurten txosten bat prestatu dugu Eusko Jaurlaritzarentzat "Hizkuntza kooperazioaren oinarri eta helburuen azterketa" izenekoa.

#### **vii. Hizkuntzaren Irakaskuntza, Jabekuntza, eta Erabilerak. Euskara, erdara, elebitasuna eta eleaniztasuna (IT983-16)(2016-2019)**

Eusko Jaurlaritzaren ikertalde egonkortuen proiektu honetan katedrako hainbat kidek parte hartzen dute eta katedraren beste ardatz nagusia den hezkuntza eleanitza eta eleaniztasunaren inguruko ikerketa eta ezagutzaren zabalkunderako bitarteko nagusia da proiektu hau.

viii. Hezkuntza eleaniztuna eta hizkuntzen trataera bateratua. EHUA15/22. (2015-2017)

Hezkuntza eleaniztunari buruzko proiektu honen helburua, euskeraz, gazteleraz eta ingelesez dauden baliabide didaktikoak sortu eta aztertzea da Hizkuntzen Didaktika Integratuaren ikuspegitik. Bestalde, euskara bezalako hizkuntza gutxituak ikasteredu eleaniztetan nola txertatu aztertzen du.

ix. Oihaneder Euskararen Etxeak antolatutako Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa

Katedrako kide berria den Beñat Garaio, Oihaneder Euskararen Etxeak duela hiru urtez geroztik antolatzen duen Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloan laguntzaile gisa aritu da. Ekimen honetan hizkuntza gutxitu bateko hiztun edo aditu bat gonbidatzen da, mundu zabalean dauden hizkuntza gutxituetako egoera Euskal Herrira, eta batik bat Gasteizera hurbiltzeko asmotan. 2017-2018 ikasturtean, eta Urtzi Urrutikoetxea adituaren ongi-etorri hitzaldiaren ostean, frisia, esperantoa, zeinu hizkuntza(k), kaxubiera, kokamera eta txerokiera izan dira hizkuntza gonbidatuak.

## 3.2. Formakuntza eta dibulgazioa

### 3.2.1. Emandako ikastaroak

- **Ibon Manterola:** "Hizkuntza ukipena". *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra*. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. 2016-2017 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

- **Ibon Manterola:** "Social-Discursive Analysis and Language Didactics". Master Ofiziala: *Language Acquisition in Multilingual Contexts*. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. 2016-2017 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

- **Mikel Mendizabal.** "Plantas, indígenas y sostenibilidad". Máster propio en Medio Ambiente y Sostenibilidad. Cátedra UNESCO sobre Desarrollo Sostenible y Educación Ambiental, UPV/EHU. 17/02/23.

- **Itziar Idiazabal.** "La enseñanza del euskera: retos pedagógicos". Online hitzaldia. *Programa de Maestría en Educación Intercultural Bilingüe, Postgrado de la Facultad de Humanidades*, Universidad Mayor de San Simón, Cochabamba, Bolivia, 17/05/02.

- **Itziar Idiazabal & Estibaliz Amorrortu.** "Nuevos hablantes de lenguas minorizadas: escuela y sociedad". Kozuzendariak. UPV/EHUko uda ikastaroa. Bilbo. 17/07/11-12.

- **Estibaliz Amorrortu.** "Euskal hiztun berri gazteen hizkuntza-identitateak". UPV/EHUko *Nuevos hablantes de lenguas minorizadas: escuela y sociedad* uda ikastaroan hitzaldia, Bilbo, 17/07/11-12

- **Ane Ortega.** "Eskolaren lorpenak eta erronkak euskal hiztun berri arrakastatsuek lortze aldera". UPV/EHUko *Nuevos hablantes de lenguas minorizadas: escuela y sociedad* uda ikastaroan hitzaldia. Bilbo, 17/07/11-12.



- **Mikel Mendizabal.** "EUSKAL LURRALDEAN, INDIGENISMOAREN AZTARNAK. Territorio, Cultura e Identidad: Aproximación a la Tierra del Pueblo Vasco". Asteburuko saioa *Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko Ikastaldi Trinkoa*. 17/09/22-24.

- **Andoni Barreña:** "Claves del proceso de revitalización del euskara: Corpusa eta Hezkuntza ataletako arduraduna". *Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko Ikastaldi Trinkoa*. Ikastaroko Batzorde Akademikoko kidea eta 2. Moduloko arduraduna eta irakaslea. Iraupena: 10 orduko eskolak. Antolatzailea: Garabide Elkartea. Aretxabaleta, 17ko urria (1-31).

- **Itziar Idiazabal:** "Euskal Herriko eskola elebidunaren historia eta erronkak" *Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko Ikastaldi Trinkoa*. Hitzaldia. Garabide Elkartea, Aretxabaleta, 17/10/30.

- **Ibon Manterola.** "Hizkuntzak ikasteko jarrera eta motibazioak". Etxepare Institutua: *Atzerriko unibertsitateetan eta goi mailako zentroetan euskara irakasteko prestakuntza ikastaroa*. Donostia, 2017/10/07.

- **Belen Uranga:** "Hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-ekologia". *Hizkuntza Biziberritzeko gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoa*. Antolatzailea: Garabide Elkartea Aretxabaleta, 17/10/08

- **Belen Uranga:** "Lenguas y desarrollo sostenible" hitzaldia. Máster propio en Medio Ambiente y Sostenibilidad. Cátedra UNESCO sobre Desarrollo Sostenible y Educación Ambiental de la UPV/EHU, 17/11/08.

- **Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega & Jone Goirigolzarri.** Hezkuntza profesionalekin mintegia hiztun berrien ikerketaren emaitzak eztabaidatzeko. Deustuko Unibertsitatea, 17/11/27.

- **Leire Diaz de Gereñu.** "HIZKUNTZEN ALDAKORTASUNA ETA ALDAERAK. Euskararen didaktikarako ekarpenak." *Máster Universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria*. UPV/EHU. 2017-2018 Ikasturtea. 3ECTS.

- **Leire Diaz de Gereñu.** "Hizkuntzalaritza aplikatuaren oinarriak II: eleaniztasuna eta irakaskuntza". Máster oficial: *Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterra*. Hizkuntzalaritza aplikatuko funtsezko ikastaroa II. UPV/EHU. 2017-2018 Ikasturtea. 1.5 ECTS, 30h.

### 3.2.2. Katedrak dibulgaziorako antolatutako ekitaldiak

- 2017eko otsailak 21. Urtero bezala, **Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna** dela eta, katedrak topaketa bat antolatu zuen Azkue Fundazioarekin batera. Aurtengo topaketa birtuala izan da, zehazki, infografia bat prestatu eta partekatu genuen sareetan, batez ere twitterren egun osoan zehar. Infografia hiztun berrien familietan ematen den transmisioari buruzkoa zen eta bertan datu esanguratsuak jaso genituen egungo jarrerei buruz. Datuak partekatzeko modu aproposena txioen bidez izan zen eta interakzio ugari izan genituen jardunaldi osoan.

- Martxoaren 22an, Asociación Africanista Manuel Iradier-ekin batera, Katedrak mahai-inguru bat antolatu zuen Gasteizeko letren fakultatean. Mahai-inguruaren izenburua "Hizkuntza lankidetzaren eta Afrikako hizkuntzak" izan zen eta gai horri buruz aritu ziren gonbidatutako adituak: Mohand Tilmatine (Universidad de Cádiz), Sally Estelle Mekame Tiogo (Universidad de Logroño), Justo Bolekia Boleká (Universidad de Salamanca) eta Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra). Gonbidatuek lankidetzaren gaia hizkuntzen ikuspegitik jorratu zuten eta euren herrialdeetako esperientziak azaldu.

- Apirilaren 26an, "Sacando la lengua de su escondite. Lenguas indígenas en entornos urbanos de Latinoamérica" izenburuko mintegi bat egin genuen. Mintegia, Katedrak eta UPV/EHUko ELEBILAB taldeak antolatu zuten eta bertan Inge Sichra hizkuntzalari eta Cochabamba (Bolivia)ko San Simon Unibertsitateko irakaslea hizkuntza indigenen erabilerrari buruz mintzatu zen hiri-esparruetan.

- Uztailaren 11an eta 12an Katedrak eta Deustuko Unibertsitateak uda ikastaro bat antolatu zuten "Hizkuntza gutxituetako hiztun berriak: eskola eta gizartea" izenburuarekin. Bertan gonbidatutako adituak euskararen, irlandiararen eta katalanaren hiztun berriei buruz mintzatu ziren. Ikastaroaren amaieran, katedraren X. urteurrena ospatu zen eta ospakizunean Carme Junyent hizkuntzalari katedraren ohorezko kide izendatu zen UPV/EHUko errektoreordearen eta Hizkuntza Politikarako sailburuordearen aurrean.

- Azaroaren 6an, Zestoan, Euskal Herriko UNESCO Sarearen 2017ko topaketa egin zen eta bertan katedrak eta EASO Politeknikoak "17+1 Garapen Iraunkorrerako Helburuak" proiektua aurkeztu zuten sareko kideen eta gainerako parte hartzaileen aurrean.

### 3.2.3. Katedrako kideen parte hartzea beste ekitaldi zientifiko batzuetan

- Amorrortu, E. "Hiztun berriak eta hizkuntza-ohitura aldatzea" komunikazioa, UDALTOP Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketak 2017, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatua. 17/05/12.

- Amorrortu, E. "Hiztun berrien erabilera azaltzeko gakoak: hizkuntza-ohitura eta beste". Aurkezpena, Euskararen transmisioari buruzko mintegia, *Eta Kitto Euskara Elkarteak* antolatua. Eibar, 17/05/27.

- Amorrortu, E. "Euskararen erabilera sustatzeko, datu batzuen argitan" mahai inguruan parte hartzea. *Euskararen erabilera: egoera, bilakaera eta norabidea, datuen argitan*, uda ikastaroa, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Soziolinguistika Klusterrak antolatua 17/07/20-21.

- Amorrortu, E. "New Speakers and language revitalization policies" izeneko panelaren antolatzailea. In: *The New Speakers Network Final Action Conference*. Coimbra, Portugal, Coimbra, 17/09/14-16.

- Aldekoa, A., Manterola, I., Idiazabal, I. & Garcia-Azkoaga, I. "Text-genre based analysis of the acquisition of L2 writing skills: the example of kitchen recipes". Poster. *IASCL 2017*. Lyon.
- Aldekoa, A. & Manterola, I. "Towards an Integrated Teaching of Basque, Spanish and English: analysis of multilingual oral expository texts produced by trilingual students". Komunikazioa, *International Conference on Multilingualism and Multilingual Education*. Braga (Portugal), 2017/05/11.
- Barreña, A. "Revitalización de las lenguas originarias". Hitzaldia skypez. Antolatzaileak: Centro de Culturas Originarias Kawsay - El Taller de Historia Oral Andina (THOA) - La Carrera de Antropología de la UMSA. Bolivia. 17/02/21.
- Barreña, A. "Claves en la revitalización de la lengua originaria". Hitzaldia. Otavalo (Ekuador) udaletxeko areto nagusian. 17/11/28.
- Barreña, A. "Cooperación lingüística y revitalización lingüística: una experiencia vasca". Hitzaldia mahainguruan: Taula Redonda Linguapax-I. Generació de contextos per a la diversitat lingüística: xarxes de cooperació lingüística, cultural i digital. *I Congrés Internacional sobre revitalizació de llengües indígenes i minoritzades*. Bartzelona, Vic. 17/04/19-21.
- Barreña, A, González, Y.J. & González, V. "Revitalización, iniciativa comunitaria y ámbitos estratégicos en el fortalecimiento de la lengua: el Nasa Yuwe en Çxhab Wala Kiwe". Komunikazioa. *I Congrés Internacional sobre revitalizació de llengües indígenes i minoritzades*. Bartzelona, Vic. 17/04/19-21.
- Barreña, A. "Hizkuntza-lankidetzeta, esperientzien elkar-trukatzea eta biziberritze-estrategiak/Cooperación lingüística, intercambio de experiencias y estrategias de revitalización." Sinposioaren antoilatzailea. *I Congrés Internacional sobre revitalizació de llengües indígenes i minoritzades*. Bartzelona, Vic. 17/04/19-21.
- Diaz de Gereñu, L. "Euskal ahozko narratzaileak" *Ahoz Aho* jaialdia. 17/03/25.
- Diaz de Gereñu, L. & Garaio, B. "How a ghetto school became a success story for community building, urban multilingualism and immersion education: The role of Ramón Bajo Primary School on drawing together a community through Basque". *I Congrés Internacional sobre revitalizació de llengües indígenes i minoritzades*. Bartzelona, Vic. 17/04/19-21.
- Diaz de Gereñu, L. & Garcia Azkoaga, I. "La repetición léxica como mecanismo de textualización: funciones pragmáticas en las narraciones orales para público adulto e infantil." GRATO 2017. *5th International Conference on Grammar and Text*. Lisboa, 17/06/28-30.
- Diaz de Gereñu, L. "Eleaniztasunean irakatsi: Euskara ardatz eta ikasle eleaniztunak helburu dituen eskolaren ezaugarriak eta hizkuntzen tratamendu bateraturako baldintzak", CEIP SAN MARTIN, Vitoria-Gasteiz, 2017/06/27.

- Garaio, B. "Transdisciplinary humanistic research at its best": case studies where documentation also meant revitalization. Gonbidatutako hitzaldia. *ENGHUM Spring Workshop*. Varsovia. 17/03/29-31.
- Garaio, B. "The "safety zone", as it applies to nation-state-ruled language communities: Expanding T. McCarty's concept". Aurkezpena. *I Congrès Internacional sobre revitalizació de llengües indígenes i minoritzades*. Bartzelona, Vic. 17/04/19-21.
- Garaio, B. Saioko chair ardura. *I Congrès Internacional sobre revitalizació de llengües indígenes i minoritzades*. Bartzelona, Vic. 17/04/19-21.
- Garaio, B. "Herrialdeen herrialdea, partekatutako egitasmo eleanitza? Espainolismo linguistikoaren erantzuna bitza publikoan hizkuntza gutxituen agerpenaren aurrean". Aurkezpena. *MDE doktorego eskolako doktoregaien mintegia*. Gasteiz, 17/05/04.
- Garaio, B. "Urkixote eta euskararen aurkako gurutzada": buru bakarreko etsaia?. Posterra. *IkerGazte II*. Iruñea, 17/05/10-12.
- Garaio, B. "Gasteizko Ramon Bajoko irakasleen ardura aniztasuna euskarara hurbiltzeko: galdera apreziatiboen bidez egindako elkarrizketek esaten dutena". Aurkezpena. *IKER UMR 5478 - UBM - UPPA - UPV/EHU unibertsitateetako doktoregaien mintegia*. Gasteiz, 17/06/02.
- Garaio, B. Eusko Ikaskuntzako "E5 egitasmoaren" lehenengo mintegiko dinamizatzailea. Gasteiz, 17/06/03.
- Garaio, B. "¿Y cómo llamamos a nuestra hija?": Euskal Herritik kanpo euskal izenek izan duten arrakastaren inguruan". Posterra. *Hizkuntzalari Euskaldunen III. Topaketa: Zer berri?*. Baiona, 17/07/04.
- Garaio, B. "'They will not demolish this! This is a breathing space for Basque!' Micro Language policy in Errakaleor, a squat neighbourhood in Gasteiz". Aurkezpena. *Symposium on the Politics of Language Policy at the Local Level*. SOAS University of London. London, UK, 17/09/22.
- Garaio, B. "¿Un país de países, un proyecto común multilingüe? El españolismo lingüístico frente a la aparición de los idiomas minorizados en la pantalla pública". Aurkezpena. *XXXII Congreso Internacional de la Asociación de Jóvenes Lingüistas*. Sevilla, 17/11/09-11.
- Garcia Azkoaga, I. & Perez Caurel, M. "Hizkuntza aniztasuna eta hizkuntzen biziberritzea". Mintegia. *Foundation Vie pour Tous*-eko hezkuntza profesionalei zuzenduta. Kandi, Benin. 17/02/08.
- Garcia Azkoaga, I. & Perez Caurel, M. "Diversidad Lingüística y Cultural en Benín: un patrimonio inmaterial poco conocido". Aurkezpena. *I Congreso Internacional de Patrimonio Cultural Inmaterial*. Iruñea. 17/10/05.

- Goirigolzarri, J. & Manterola, I. "Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen" izeneko ikastaroaren antolatzaileak, Oihaneder Euskararen Etxean. 2017ko urtarrila-maiatza.
- Goirigolzarri, J. "Zergaitik dira garrantzitsuak hiztun berrientzat euskal hedabideak XXI. mendean?" *Euskal hedabideak itun bila*. Euskaltzaindia. Bilbo, 17/02/22.
- Goirigolzarri, J. "Gizarte kapitala eta aniztasuna" mahai inguruan parte hartzailea. UPV/EHUko *Kohesioa eta bizikidetzaren eraikitzen: Euskal lurraldeak eta lurraldetasuna* Udako Ikastaroan. 17/09/13-15.
- Idiazabal, I. & Mendizabal, M. "17+1 Objetivos de Desarrollo Sostenible". Komunikazioa, *Jornadas La educación, base para los Objetivos de Desarrollo Sostenible* (ODS). Bilbao, 17/09/06.
- Idiazabal, I. & Mendizabal, M. "17+1 Objetivos de Desarrollo Sostenible". Komunikazioa. *I Congreso Internacional de Patrimonio Cultural Inmaterial*. Iruñea. 17/10/05
- Idiazabal, I. "La escuela una de las claves para la revitalización de lenguas minorizadas". Komunikazioa. *I Congrès Internacional sobre revitalizació de llengües indígenes i minoritzades*. Bartzelona, Vic. 17/04/19-21.
- Idiazabal, I. "What does a bilingual school mean for minoritized languages like Nasa-yuwe or Basque?". *SUSTAINABLE MULTILINGUALISM 2017*. Vytautas Magnus University, Kaunas, Lithuania. 17/05/26-27.
- Manterola, I. "El impacto de la educación plurilingüe en la transmisión intergeneracional del euskera: ¿pista para el análisis de políticas lingüísticas familiares en contextos de diáspora?" Komunikazioa, *¿Nuevos hablantes, nuevas variedades? Desafíos de la investigación sociolingüística en relación con la diáspora*. Bremen, 17/01/25.
- Manterola, I. "Euskararen biziberritzea. Ziklo berrirako osagai batzuk." Dibulgazio hitzaldi gonbidatua, Bergarako Jardun Euskara Elkarte. 17/05/03.
- Manterola, I., Reyna Muniain, F. & Nandi, A. "Extended family language policies of new speaker parents: Role of immersion schools in autochthonous and diasporic contexts". Komunikazioa, *11 International Symposium on Bilingualism*. Limerick, 17/06/11.
- Manterola, I. "El rol de la escolarización en euskera en las políticas lingüísticas familiares para revitalizar la lengua: ejemplos de la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra." Komunikazioa, *III Simposi EDISO*. Bartzelona, 17/06/28.
- Manterola, I. "Zer har genezake psikolinguistikatik eta hizkuntzaren jabeakuntzatik eskolan gramatika irakasteko? (I eta II)". Hitzaldi gonbidatuak, *¿Qué podemos hacer con la Gramática en las aulas de Lenguas de Primaria y Secundaria?* UPV/EHUko Udako Ikastaroa. Donostia, 17/07/03.

- Manterola, I. "Minority language-based multilingual education: a key element of the revitalization of Basque". Hitzaldi gonbidatua, *Languages across the Iberian Peninsula* mintegia. Berlin, 17/07/07.
- Ortega, A. & Diaz de Gereñu, L. "Euskararen biziberritzea eta Eskola". *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktikarako aukera berriak birpentsatzen* ikastaroan, Oihaneder Euskararen Etxeak antolatua. Vitoria-Gasteiz, 17/01/31.
- Ortega, A. "Geureak eta inorenak: kultura, identitatea eta transmisioa" mahai-inguruan parte hartzea. Labayru Fundazioak antolatua. Bilbo, 17/03/30.
- Ortega, A. "New speaker competence and varieties: The Basque context". Komunikazioa. The New Speakers Network Final Action Conference. Coimbra, 17/09/14-16.
- Ortega, A. "Ideologies, self-perception and practices in new speakers' competence and varieties" izeneko panelaren antolatzailea. In: *The New Speakers Network Final Action Conference*. Coimbra, 17/09/14-16.
- Perez-Caurel, M. "Cátedras UNESCO: redes universitarias solidarias". Komunikazioa, *Jornadas La educación, base para los Objetivos de Desarrollo Sostenible* (ODS). Bilbao, 17/09/06.
- Uranga, B. "Ondorioak eta erronkak" itxiera mahai-ingurua. UEUko Euskararen biziberritzea ikastaroa. UEU. Gasteiz, 17-05-30.
- Uranga, B. "Euskal soziolinguistikan buru-belarri ikertzen: Soziolinguistika Klusterraren ibilbidea" komunikazioa. *Hizkuntzalari Euskaldunen III. Topaketa: Zer berri?* Baiona - IKER euskara eta euskal testuen ikerketa-zentroa, 17/07/04.
- Uranga, B. "Hizkuntza-lankidetzeta, esperientzien elkar-trukatzea eta biziberritze-estrategiak/Cooperación lingüística, intercambio de experiencias y estrategias de revitalización" Sinposioaren parte hartzailea. *Primer Congreso Internacional sobre Revitalización de Lenguas Indígenas y Minorizadas*. Bartzelona, Vic, 17/04/19-21.

### 3.3. Katedraren presentzia hedabideetan

2017an Katedra sarri agertu da komunikabideetan eta agerpen horien helburua alde batetik Euskal Herriko eta munduko hizkuntza aniztasuna ezagutzera ematea izan da eta bestetik, hezkuntza eleanitzaren onurei buruz hitz egitea. Komunikabideekin izan dugun harremanetan ez dugu bakarrik katedrako kideek parte hartu, hitzaldietara kanpotik ekarri ditugun adituek ere parte hartu dute.

Urte hasieran Ines Garcia Azkoaga eta Manel Perez-Caurel-i elkarrizketa bat egin zieten Banikoara-ko Irratian (Beningo irrati publikoa) baatonum hizkuntza indarberritzeko proiektuari buruz.

Aurretik aipatu den moduan, katedrak mahai-inguru bat antolatu zuen Gasteizko

Letren Fakultatean hizkuntza afrikarrak eta lankidetzari buruz. Ekitaldi horretara gonbidatu genuen Justo Bolekia irakaslea elkarrizketatu zuten mahai inguruaren gaiari buruz eta zehazki Ekuatore Gineako hizkuntzei buruz [Berria](#)-n eta [Argia astekarian](#).

Amerikako hizkuntzei buruz katedrak antolatu zuen mintegira gonbidatu genuen adituak, Inge Sichra soziolinguistak, Radio Euskadiren [La Casa de la Palabra](#) saioan hartu zuen parte eta Roge Blasco kazetariak [sarrera](#) bat egin zuen bere blog-ean berari buruz. Gainera, Itziar Idazabalekin batera elkarrizketatua izan zen UPV/EHUko [Campusa](#) aldizkarian.

Ibon Manterola Bergarako "Txapa" irratian [elkarrizketatu](#) zuten, Bergaran bertan euskararen biziberritzeari buruz eman zuen hitzaldi baten harira.

Katedraren X. urteurrena dela Itziar Idiazabal UPV/EHUko [Campusa](#) aldizkarian agertu zen Katedraren lorpenak eta erronkak azaltzen. Bestalde, Idiazabalek euskararen eguneko Radio Euskadiren Cronica Euskadi saioan hartu zuen parte beste adituekin batera.

Sermos Galiza astekarian otsailaren 23an Manel Pérez-Cuarel-en artikulua bat argitaratu zuten galizieraren egoerari buruz Bierzon, "A lingua galega no Bierzo e Seabra nun limbo sen fin" izenburuarekin.

Nasa Yuwe hizkuntzari buruz eta bere biziberritze prozesua azaltzeko, Andoni Barreñak elkarrizketak eskaini ditu [Anboto](#)-n, [Mugalari](#)-n eta baita [Kurutzaga ikastola](#)ren webgunerako.

Hiztun berrien gaiari buruz, agerpenak ugariak izan dira. Bi aipatuko ditugu: Estibaliz Amorrortu eta Jone Goirigolzarriren elkarrizketa [Berria](#)-n eta Ane Ortega eta Jone Goirigolzarriren elkarrizketa ETBko [Ahoz aho](#) saioan.

## 4. ARGITALPENAK

---

- Amorrortu, E., Ortega, A. eta Goirigolzarri, J. (2017). *Hiztun berriak eta hizkuntza-ohitura aldatzea [New speakers changing their language habits]*. Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketetan aurkeztutako txostena.
- Barreña, A., Pérez-Cauel, M. (2017). *La revitalización de la lengua embera en Colombia: de la oralidad a la escritura*. ONOMÁZEIN, Revista de Lingüística, filología y traducción. *Número especial: Las lenguas amerindias en Iberoamérica: retos para el siglo XX*, 59-76 orr.
- Diaz de Gereñu, Leire (2017). "Eskola eta euskararen biziberritzea: arrakastarako baldintzak aztergai", In Goirigolzarri, J., Landabidea, X & Manterola, I. (Ed.): *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. UEU, 103-124
- Diaz de Gereñu, Leire (2017). "Kontalaritza, nondik nora?", *Behinola*, 35-Ekaina, 6-21.
- Garaio, B. (2017). ".EUS euskararen arnagune digitalaren egoera eta etorkizuneko erronkak" *Euskera aldizkaria, Euskaltzaindia*, 61, 743-774 orr.
- Garaio, B. (2017). "Euskara irabazteko bidean", Garikoitz Goikoetxea. *RIEV*, Eusko Ikaskuntza, 62.
- Garaio, B. (2017). "Pensar en vers: La canço improvisada als països de la Mediterrània", Josep Vicent Frechina. *The Journal of Folklore Research, Indiana University, 2017 issue (online)*
- Garaio, B. (2017). Hizkuntzak eta gatazkak, testuinguru anitzetako hizkuntza eta identitate politikak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, Soziolinguistika Klusterra, 102-118 orr.
- Garaio, B. (2017). "Urkixote eta euskararen aurkako gurutzada": buru bakarreko etsaia?. *II. Ikerlari Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bilduma. Osasun Zientziak* (arg: UEU). ISBN: 978-84-8438-629-2.
- Garaio, B. (2017). Ekainaren 2an, Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen has gaitzen. *Sustatu*. <https://sustatu.eus/bgaraio/1494420927>
- Garaio, B. (2017). Euskararen arnagunea itoko du Gasteizko Udalak auzoa eraisten badu. *Argia* <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2569/errekaleor>
- Garaio, B. (2017). "Hokkieneraren galeraren lehenengo pausoak ikusten hasi gara". *ALEA Arabako aldizkaria*. <https://alea.eus/araba/1492602414578-hokkieneraren-galeraren-lehenengo-pausoak-ikusten-hasi-gara>



- Garaio, B. (2017). "Gaur egun Polonian poloniarrek baino ez daude, batzuen ustez". *Argia Astekaria*. <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2550/tymoteusz-krol-wymysouera-hiztun-gazteenetakoa>
- Garaio, B. (2017). "Irlandera 'nirea' zen, baina etxean ingelesez mintzo ginen". *ALEA Arabako aldizkaria*. <https://alea.eus/gasteiz/1486717516758-irlandera-nirea-zen-baina-etxean-inglesez-mintzo-ginen>
- Garcia-Azkoaga, I.M. & Sullón, K. (2017). Capacidades lingüísticas shipibo-castellano en textos escritos por escolares bilingües de Ucayali (Perú), *Onomázein, N.º especial: Las lenguas amerindias en Iberoamérica: retos para el siglo XXI*, 153-170. (ISSN: 0717-1285).
- Goirigolzarri, J. (2017). *Hizkuntzak eta alderdi politikoak: diskurtso linguistikoak Euskal Autonomia Erkidegoan*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Goirigolzarri, J., Landabidea, X., Manterola, I. (koord.) (2017) *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbao: UEU/Deustuko Unibertsitatea. ISBN. 978-84-8438-636-0.
- Idiazabal, I. (2017). ¿Qué significa la escuela bilingüe para lenguas minorizadas como el Nasa Yuwe o el euskera?. *ONOMÁZEIN - N.º especial | Las lenguas amerindias en Iberoamérica: retos para el siglo XXI*: 137 - 152.
- Manterola, I. & Almgren, M. (2017). "L'enjeu de la scolarisation en basque: différenciation selon les contextes sociolinguistiques et pratiques des élèves », *Bulletin suisse de linguistique appliquée* III-5 63-75.
- Ortega, A. (2017). "Euskararen biziberritzea eta eskola 1: hiztun-profil berriak eta ideologia berriak". In J. Goirigolzarria, I. Manterola & X. Landaluze (arg.). *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. 79-100.orr. Bilbao: UEU/Deustuko Unibertsitatea. ISBN. 978-84-8438-636-0.
- Puidgevall, M., Walsh, J., Amorrortu, E. & Ortega, A (argitaratze bidean). New speakers and linguistic mudes: becoming, passing and belonging. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*.
- Urla, J., Amorrortu, E. , Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2017). "Basque Standardization and the New Speaker: Political Praxis and the Shifting Dynamics of Authority and Value". In P.M.J. Lane, J. Costa & H. de Korne (eds.). *Standardizing Minority Languages: Competing Ideologies of Authority and Authenticity in the Global Periphery*. New York & London: Routledge. 24-46 orr. ISBN. 9781138125124. [Online Open access: <https://www.taylorfrancis.com/books/9781317298878>]
- Uranga, B., (2017). "Azken gogoetak: ideien dantza libre." In *Euskararen biziberritzea. Marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo. UEU.